

IL ULERMEN PROBA • <i>Morto Vivace</i>
Izen-deiturak ..... Taldea .....
> Markatu (X) erantzunak (10) amaierako test laukian: A B C
> Gaizki erantzundakoek ez dute negatiborik.

Zuzen		
Negatib.		
GUZT.		/ 10
Kalifikaz.		/ 10

1	Begiak itxita, eskua bihotz aldera eramane zuen azken hitzak ahoskatzerakoan: <i>dilegua o notte, tramontate stelle, all'alba vincero, vincero...</i> Baina orduan, ariaren goreneko notara igotzeko bultzada hartzen ari zen unean, emakumezko baten oihuak erabat hondatu zuen giro zirraragarria.	<p>a) Detektibeak opera emanaldi batean daudela, istiluak sortu dira, oihuak eta.</p> <p>b) Tenorearen saioa boikotatzera joan den emakume bat da pasarteko protagonista.</p> <p>c) Sena ibaian, itsasontzi batean doazela, turista talde bat opera saio bat entzuten ari da, eta eta ustekabeko eten bat gertatu da.</p>
2	Plazaren alboko txoko baten kebab-toki bat zegoen, espaloian terraza txikia zeukana. Bertako aukietan jesarrita berrogei urte inguruko bi gizon zeuden, ogitarteko bana jaten. Eguraldi epelak eskatzen zuen baino arropa gehixeago zeukaten jantzita, arropa ilunak biek ere. Bata magrebtarra zen eta bestea beltza; biak ziren gizon garaiak, baina beltza, sudur handi eta oso zapalekoa, bestea baino askoz sendoagoa zen burutik oinetaraino.	<p>a) Protagonisten deskribapena da: Perrot eta Martinez.</p> <p>b) Detektibeek bi susmagarrirekin topo egin dute eta galdekatu egingo dituzte.</p> <p>c) Kebab-toki baten kanpoaldean, Perrotek bi polizia lagun aurkitu ditu, otordua egiten.</p>

	A	B	C
1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			
9			
10			

3	Lucien Zelai ohartu zen polizia biak isilik begira zeuzkala, beste zerbaiten zain, eta luzatu egin zuen azalpena: —Postreetan bai ikusi dudala Jean Michel gure artean, baina gero xanpaina eta kopak etorri dira, jendea lekuz aldatzen hasi da, kantatzeari ekin diogu jantokian bertan, inguruko beste pasaiariiek animatuta...	<p>a) Detektibeak Lucien Zelai galdekatzen ari dira, uste baitute Jean Michel izan daitekeela hiltzailea.</p> <p>b) Jean Michelen heriotza argitzeko Lucien Zelairen azalpenak entzuten ari dira Martinez eta Parrot.</p> <p>c) Lucien Zelai koruko zuzendaria da, eta azaltzen ari da zelan pasatu duten afaria, Jean Michelen bisita ere izan dutelarik.</p>
4	—Zergatik ezkondu ote nintzen behi alfer batekin? —murmurikatu zuen. —Kriston pagotxa izan zelako zure moduko gorila batentzat familia oneko andre zuri bat lortzea. —Eta izorra geratu zinela gure lehenengo txortaldian —zaunka egin zuen gizonak, korridore erdian geldialdi laburra eginda eta besoak jasota—. Ziur nahita egin zenuela, ni harrapatzeko!	<p>a) Martinez gogoratzen ari da zelan dibortziatu zen bere emaztearengandik.</p> <p>b) Parisen auzune txarretako bikote ezezagun baten bizimodu petrala adierazteko elkarrizketa bat da, istorioa girotzeko.</p> <p>c) Perrot detektibea eta beraren emaztearen arteko eztabaida garrantz bat da, igande goiz batean.</p>

5	<p>Handik keinua egin zion ingurutik pasatu zen lehenengo taxiari. Ez zen gelditu. Eta bigarrena ere ez. Ezta hirugarrena ere. Bost bat minutuz saiatu zen, batere arrakastarik gabe. Gidari batzuek ezikusiarrena egiten zuten, beste batzuek zeharka begiratu eta jaramonik ere ez zioten egiten, baten batek galga sakatu beharrean bizkortu egiten zuen abiadura, inori aurpegiari izu keinua ere antzeman zion...</p>	<p>a) Bi detektibeak taxi bat hartu nahian dabilta, Paris erdigunerantz joateko.</p> <p>b) Jazartzen ari diren susmagarri bat taxi bat hartu nahian dabilela ikusi dute Perrotek eta Martinezek.</p> <p>c) Bazter auzo batean bizi denez, Perroten emazteak ezin izan du lortu taxi bat hartzea.</p>
6	<p>Ezer eskatzeko abagunerik eman gabe, emakumeak barrapetik <i>absenta</i> 85° zioen botila bat atera eta basokada bana zerbitzatu zien ailegatu berriei. Metxeroaz likidoari sua eman eta eskaini egin zien.</p> <p>—Lehenengo eta behin, benetako gizonak zaretela erakutsi behar didazue. Ez du balio txahala botatzeak.</p>	<p>a) Detektibeen nagusiak bulegoan edari alkoholdunak ere baditu, eta eskaini egin die tragu bana.</p> <p>b) Angela portugaldarraren pubean daude bi detektibeak.</p> <p>c) Kebap-tokiko zerbitzariak <i>absenta</i> kopa bana eman die dastatzeko, ogitartekoeekin hasi aurretik.</p>
7	<p>—Gustuko duzu nire sudurra? —zaunka egin zion inspektore beltzak—. Ba hirugarren ostiaz honela utziko dizut zurea betiko, espabilatzen ez bazara.</p> <p>—Benetan diot —kexatu zen lurreko gizona, adorea eta harrokeria erabat galduta—, beltz arrunta zen.</p> <p>—Zer da arrunta, nire modukoa?</p> <p>—Ez, argalagoa eta txikiagoa.</p>	<p>a) Komisarian, Perrot eta Martinez susmagarri bati informazioa atera nahian dabilta.</p> <p>b) Marais auzunea kontrolatzen duen Xagu ezizeneko proxeneta batekin daude bi detektibeak.</p> <p>c) Pub bateko atezaina galdekatzen ari da Perrot, modu bortitzean.</p>
8	<p>Zuek uste duzue XXI. mendeko Parisen jendea jipoitzen ibil daitekeela hortik zehar? Zer mundutan bizi zarete?</p> <p>Zutik zirauten gizonak elkarri begiratu zioten, hasiera bateko ardura arindurik eta ia pozez.</p> <p>—Hori baino ez da? —esan zuen inspektore beltzak—. Ez dago beste hilotzik edo bestelako arazo berririk?</p> <p>—Ez duzue nahikoa gorpu birekin, ala? Eta erantzun nire galderari, joder!</p>	<p>a) Detektibeen kapitainak bulegora deitu ditu, salaketa bat jaso duelako, haien bortizkeria dela eta.</p> <p>b) Mediku forentsearekin daude, eta kexaka ari zaie, jadanik hildako bi agertu direlako.</p> <p>c) Harrapatu duten susmagarri bat oihuka ari zaie inspektoreei, eta aurpegiatzen die basati hutsak direla.</p>
9	<p>Izan ere, ibai bazterreko arlote bat beste era batera ari zen agurtzen barkuko turistak: zakila erakutsiz eta atzamar luzea gora eramanez tarteka. <i>Bateau-mouche</i>-a zubiaren azpitik igaro arte jardun zuen horrela. Gero berriz lotu zituen prakak, lurretik ezpata antzeko tresna bat jaso eta oinez abiatu zen Pont de l'Alma-rantz, hain zuzen ere Le vieux mouche oraindik prezintatuta zegoen alderdirantz.</p> <p>—Arlotea ikusi duzu, Martinez? —esan zion Perrotek kopilotuari.</p>	<p>a) Detektibeen ezaguna den mozkorti bat da, askotan detenitu dutena exhibizionismoa egiteagatik.</p> <p>b) Parisen, Senatik zehar ibiltzen diren turistek zelakoak ikusi behar dituzten erakusten duen pasartetxo bat da, eleberria girotzeko.</p> <p>c) Arlote hori susmagarritzat hartzen dute, duen tresna bat hilketak egiteko erabili dena izan baitaiteke.</p>
10	<p>“Non dago zuria?”. Ia segituan bere hazpegi berdintsuko neska gazte bi eta gizon beltz bat hurbildu zitzaizkion mahaira eta, euro billeteak eskuan, posturak egiten hasi ziren. Batzuetan galdu eta beste batzuetan irabazi egiten zuten, baina itxuraz, behintzat, “zuria” non zegoen asmatzeak munduko gauzarik errazena zirudien.</p> <p>—Zelako potroak dauzkan errusoak! —esan zuen Perrotek haginkada biren artean, gogaiturik legez—. Gure muturren aurrean ere lanean.</p>	<p>a) Azkenean, ustekabeak jabetu dira turistak engainatzen ibiltzen den erruso bat dela hilketen egilea.</p> <p>b) Kalean, diru apustuak egiteko joko batekin ari den etorkin bati erreparatu diote eta Martinez korrika bizian saiaturako da hura harrapatzen.</p> <p>c) Eleberriaren amaieran, Perrot eta Martinez ere hurbilduko dira errusoaren apustujokora eta dirutxo polita irabaziko diote.</p>